

# LITERATURA

Maria MATEO BARANGUAN

POESIAREKIN GOZATZEN ETA  
IKASTEN: POESIA LANTZEKO  
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

**MBL/TFM 2019**

**Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan**  
**Máster Universitario en Profesorado de Educación Secundaria**

Master Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Máster

**POESIAREKIN GOZATZEN, IKASTEN ETA  
SENTITZEN**

Maria MATEO BARANGUAN

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea**

Maria Mateo Baranguan

**Izenburua**

Poesiarekin gozaten eta ikasten: poesia lantzeko proposamen didaktikoa

**Masterra**

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

**Ikastegia**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Zuzendaria**

Juan Carlos Lopez-Mugartza Iriarte

**Saila**

Giza eta Hezkuntza Zientziak Saila

**Ikasturte akademikoa**

2018/2019

## LABURPENA

Jarraian aurkezten den Master Bukaerako Lanean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan poesia lantzeko unitate didaktikoa garatu da. Unitatean zehar generoaren ezaugarriak, funtzioak, zenbait autore eta historia landuko dira. Bestalde, genero honen lanketak ikasleari bere gaitasun linguistikoa (ahozko zein idatzizko adierazpena, hizkuntza sinbolikoa, hiztegia aberastea...) eta sentimenduen zein emozioen adierazpena hobetzen lagunduko dio.

Unitatearen garapenari heldu aurretik, lehenik eta behin euskal gazte literaturaren eta gazte poesiaren gaineko sarrera bat aurkeztuko da, aurretik gai hau jorratu duten lanen inguruko berrikuspen labur bat eginez. Sarreraren ostean DBHn literaturaren eta poesiaren lanketa nolakoa den azalduko da, gaian adituak direnen ikerketak jarraituz. Azkenik, atal teorikoari amaiera emateko, poesiak bai bizitzarako eta baita hizkuntza gaitasuna hobetzeko ere izan dezakeen garrantzia azalduko da.

Ondoren, unitate didaktikoan lortu nahi izan diren edukiak, helburuak eta gaitasunak eta horretarako erabilitako metodologia eta baliabideak azalduko dira. Bestetik, Ochoa de Olza ikastetxean praktikan jarritako jardueren azalpena ere emango da.

Behin unitate didaktikoa aurkeztuta, amaitzeko, atal teorikoa eta atal praktikoa aintzat harturik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan egiten den poesiaren gineko lanketaren eta didaktikaren gainean zenbait ondorio aurkeztuko dira.

**Hitz-gakoak:** gazte literatura, gazte poesia, proposamen didaktikoa, hizkuntza gaitasuna, euskara.

## RESUMEN

El presente Trabajo Fin de Máster desarrolla una unidad didáctica para trabajar la poesía en 4º de la ESO. En esta unidad se trabajarán sus características, funciones, autores e historia. Por otra parte, el trabajo de este género ayudará a mejorar la competencia lingüística del alumno-a (expresión oral y escrita, el lenguaje simbólico, el enriquecimiento en el vocabulario...), y la expresión de sus sentimientos.

Previamente a la realización de dicha unidad se expondrá una parte teórica en la que se ha hecho una investigación sobre la literatura y la poesía juvenil vasca, la didáctica de la

*Poesiarekin gozatzen eta ikasten: poesia lantzeko proposamen didaktikoa*

poesía en la ESO y la importancia de la poesía en la vida y en la mejoría del aprendizaje de la lengua.

Asimismo, se explicarán los contenidos, objetivos, competencias y capacidades que se quieren conseguir en ella, y la metodología y recursos que se han utilizado. También se presentarán los resultados de las actividades realizadas en el instituto Ochoa de Olza.

Una vez presentada la Unidad Didáctica y teniendo en cuenta tanto la parte teórica como la práctica, se darán a conocer algunas conclusiones sobre la didáctica de la poesía en Educación Secundaria Obligatoria.

**Palabras clave:** literatura juvenil, poesía juvenil, propuesta didáctica, competencia lingüística, euskera.

## **SUMMARY**

This End of Master's Paper develops a didactic unit to work on poetry in the 4th year of Secondary school. In this unit we will work on its characteristics, functions, authors and history. On the other hand, the work of this genre will help to improve the pupils' linguistic competence (oral and written expression, the symbolic language, the enrichment in the vocabulary...), and the expression of their feelings.

Prior to this unit, a theoretical part will be presented in which research has been carried out on Basque literature and youth poetry, the didactics of poetry in Secondary school, the importance of poetry in life and in the improvement of the language learning.

It will also explain the contents, objectives, skills and abilities that are to be achieved in it, as well as the methodology and resources that have been used. The results of the activities carried out at the Ochoa de Olza Institute will also be presented.

Once the Didactic Unit has been presented and taking into account both the theoretical and practical parts, some conclusions on the didactics of poetry in Compulsory Secondary Education will be made known.

**Keywords:** juvenile literature, juvenile poetry, didactic proposal, linguistic competence, basque.

## **AURKIBIDEA**

<b>Sarrera</b>	<b>2</b>
<b>1. Arlo teorikoa</b>	<b>2</b>
1.1. Gazte literatura	2
1.2. Gazte poesia	4
1.3. Literaturaren eta poesiaren didaktika hezkuntzan	4
1.4. Literaturaren garrantzia bai bizitzan eta baita hizkuntzaren irakaskuntzan ere	6
<b>2. Arlo praktikoa</b>	<b>9</b>
2.1. Nire proposamena eta helburuak	9
2.2. Testuingurua	11
2.3. Metodologia eta baliabideak	12
2.3.1. Metodologia	12
2.3.2. Baliabideak	15
2.4. Unitate didaktikoa	<b>15</b>
2.4.1. Curriculum	15
2.4.2. Unitate didaktikoaren antolaketa	23
2.4.3. Jarduerak	24
<b>3. Ondorioak eta eztabaida irekiak</b>	<b>35</b>
<b>4. Bibliografia</b>	<b>36</b>

## **SARRERA**

Azken urteotan Haur eta Gazte Literaturari bultzada handia eman zaio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Hala ere, honen barruan ez dira genero guztiak berdin landu. Adituek azaltzen dutenez, ikastetxeetan poesia oraindik ere bazterrean geratzen den generoa da, eta orokorrean, ez da modu egokian lantzen. Hori dela eta, ikasleek ez dute generoa gehiegi ezagutzen eta menperatzen.

Alabaina, poesia nerabeei bai bizitzan eta baita hizkuntzaren ikaskuntzan ere laguntza eman diezaiekeen generoa da; sentitzen dituzten emozioak kudeatzeko eta hizkuntzaren gaitasun maila garatzeko genero aproposa baita, ongi landuz gero.

Hori dela eta, lan honek, euskal gazte literatura eta poesia aztertu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleentzat poesia lantzeko proposamena dakar, jarduera desberdinen bitartez ezagutza desberdinak lantzeko helburu duena.

## **1. ARLO TEORIKOA**

### **1.1. Gazte literatura**

Mitxelenak (1981) esaten duenaren arabera, euskal literatura oso berankorra da inguruko literaturekin alderatuta, eta horrekin batera, haur eta gazte literatura ere bai. Azken hau, berankorra ez ezik, 80. hamarkadara arte nahiko mugatua ere badela aipatzen du autoreak. Haur eta Gazte literaturan adituak direnak iritzi honekin ados daude, eta guztiek 80. hamarkadan kokatzen dute haur eta gazte literatura modernoa.

Euskal literaturaren egoeraren aldaketa ezagutzeko, ezinbestekoa da testuinguruan kokatzea. 1936an Espainiako Gerra Zibila jazo zen. Hori dela eta, 1936az geroztik, beherakada nabarmena egon zen euskarazko lanen ekoizpenean.

Honen arrazoiak anitzak dira; gerrak giza eta material galera eragin zuen, eta horrek eragin zuzena izan zuen euskarazko lanen ekoizpenean. Alabaina, aldi honetako benetako bereizgarria euskararen erabileraren debekua izan zela azpimarratzen du Etxanizek (ap. Basqueliterature). Hartara, 1948. urtera arte, Hego Euskal Herrian ez zen haurrentzako edota gazteentzako lanik argitaratu euskaraz, eta argitaratzen hasi

zirenean, lehenak erlijio liburuak izan ziren (*Jesu Aurraren Bizitza*, 1948; *Haurren Eliz-liburutxo*, 1949; *Kristau-Ikasbidea Bertsotan*, 1950...) zentsura frankista gaindituz.

Franco 1975ean hiltzean, 1936ko gerraosteko diktadura amaitu zen, eta Hegoaldea poliki-poliki askatasuna berreskuratzen joan zen. 1975 eta 1980 bitartean mugimendu handia egon zen euskal gizartean; Euskaltzaindiak "Bai Euskarari" kanpaina erraldoia antolatu zuen; helduen euskalduntze eta alfabetatzeak bultzada eta igoera nabarmena izan zuen; ikastoletan ikasle kopurua nabarmen handitu zen... Euskarazko materialen beharrari erantzuteko, liburugintzan eta kultur ekoizpenean mugimendu eta lan handia egin zen. Lan horretan, besteak beste, nabarmentzekoa izan zen argialetxeek haur eta gazte literaturan egindako esfortzu handia.

Hortik abiatuta, haur eta gazte literaturan aldaketa nabarmenak eman ziren. Aldaketa kuantitatiboari dagokionez, urtean liburu gutxi batzuk argitaratzenetik 300 obra inguru argitaratzera igaro ziren. Hala ere, aldaketa kualitatiboa nabarmentzen dute adituek. Etxanizek (1997a) A. Lertxundi, B. Atxaga, eta M. Landa idazleek hasitako bidearen ondorioz haur eta gazte literaturan eman ziren aldaketak azpimarratzen ditu: aberastasuna gaietan zein estiloan, geroz eta lan zainduagoen eta literarioagoen sorrera... eta genero bakoitzaren barruan ere aldaketa asko egon ziren urte gutxitan.

Kortazarrek (2011: 25) euskal haur eta gazte literatura modernoa eraikitzen duten mugarri asko aipatzen ditu: "baliabide literarioak, irakurleengan efektu literarioa pizteko asmoz; hizkera literarioaren lehentasuna eta gaur egungo gaiak, hots, geure barne-sakontasuna, geure beldurrak, geure arazoak, komunikazio- edo maitasun-falta, eta abar."

Olaziregik (2001:20) haur eta gazte literaturak ordutik lortuz joan den garrantzia azpimarratzen du, eta egun, euskal literaturaren baitan inoiz izan duen egoerarik onenean dagoela aldeztzen du. Hori argudiatzeko zenbait arrazoi aipatzen ditu, besteak beste: erakundeen eta instituzioen aldetik genero horretan azken urteetan eman diren aurrerapausoak, unibertsitatean ere ikasketa plan berriak abian jarri zirenetik 1994an "Haur Literatura" eta "Haur eta Gazte literatura" irakasgaien sorrera, literatur lehiaketen ugaritzea...



## 1.2. Gazte poesia

Etxanizek (1997a) poesia euskal letretan tradizioz luzeena eta zabalena duen generoa dela azpimarratzen du. Hala ere, duela urte gutxi batzuk arte, bazterrean geratu den generoa izan dela diote literaturan adituak direnek, eta, bereziki haurrentzako eta gazteentzako poesia.

Kortazarrek (2011: 71) dioen bezala, “euskal poesiak presentzia galdu zuen HGL<sup>1</sup>n, ia ia desagertzera, eta horren zergatia generoan bertan bilatu beharko genuke”. Horri nolabaiteko erantzuna eman nahian, honela mintzatu zen Igerabide (ap. Behinola, 8, 75): “haur poesia beste genero bat da, menperatu egin behar dena, landu. Eta badaude hor galdu egiten diren poetak.”

Haatik, Igerabidek berak behar horri erantzun bat eman zion, eta ordura arteko hutsunea agerian utzi zuen. Izan ere, berak landu zuen lehen aldiz haur eta gazte literatura modernoa, 1992an *Begi-niniaren poemak* (Erein) argitaratu zuenean. Ekialdeko haikuen eragina duen poema liburu honek garrantzi handia izan zuen euskal HGLan; izan ere, bide berri bat ireki zuen haur eta gazte poesian, eta berak hasitako bide hura jarraitu zuten lanak argitaratu ziren hamarkada horretan bertan: *Egun osorako poemak eta beste* (Pamiela 1993), *Haur korapiloak* (Pamiela 1997), edo *Botoi bat bezala* (Anaya-Haritza, 1999) Igerabidek berak idatzia. Euskal poesian adituak direnek Igerabideren lanak izan zuen garrantzian ados agertzen dira. Etxanizek berak dioen bezala, “*Begi-niniaren poemak* ekarri zuen aldaketa, sakontzea, poesia berri ere haur eta gazte literaturan azaltzea” (Etxaniz 1997a: 314).

Igerabidek ekindako bide edo joera denborarekin indartuz joan zen, izan ere, azken datuek zehazten dutenez, 2001-2009 urte-bitarteetan, hogeit hamar poesia-liburutik gora argitaratu ziren haurrentzat eta gazteentzat euskaraz.

## 1.3. Literaturaren eta poesiaren didaktika hezkuntzan

Azken urteetan aldaketa handiak ikusi izan ditugu gizartean, hezkuntzan eragin zuzena izan dutenak: gizarte aldaketak, teknologia berrien sorrera, informazioa kudeatzeko bide berrien sorrera...

---

<sup>1</sup> Haur eta Gazte Literatura

Duela urte batzuk entzutera mugatzen zen ikaslearen rola aldatu egin da, eta entzule hutsa izatetik parte-hartze aktiboa duen edo izan beharko lukeen ikasle izatera pasa da; entzun ez ezik, bere jakintza propioa sortzeko gai izan behar duena.

Aldaketa horiek, orain arte ezagutu dugun irakaskuntzarekin “aprendizaje pasivo, memorístico, que antepone los contenidos al contacto real con los textos y relega las producciones textuales de carácter estético realizadas por los alumnos” (Margallo 2011: 170) hautsi behar dugula esaten digute.

Hala ere, literaturan arreta jarriz, Olaziregik (2000) duela urte gutxi batzuk gehienetan literatura ikuspegi *historizistaz* irakasten zela azpimarratzen zuen, eta urtero topiko eta idazle berak azaltzen eta lantzen direla; antza, beste batzuk ezagutzen ez ditugulako, gure produkzioaren ia herena haur eta gazteentzako liburuena izanik ere. Halaber, autoreak berak gaineratzen du Bigarren Hezkuntzan egiten diren aurrerapausoek ondoren ez dutela jarraipenik, unibertsitatea bere aldetik joan eta horrekin hausten duela salatuz. “Harrigarria iruditzen zait nola bigarren hezkuntzan proposatu diren aurrerapauso didaktiko nahiz metodologikoen goi mailako ikasketetan ez duten inongo eraginik izan” (Olaziregi 2000: 41).

Haatik, Olaziregi baikor agertzen da euskal literaturaren aldeko eragileak geroz eta gehiago direlako, baina hauek indarrak batu behar dituztela aldarrikatzen du: “haur eta gazte literaturan eragile asko dago eta indarrak uztartu behar dira” (Olaziregi 1999: 47).

Bestetik, hezkuntzan lantzen diren generoetan arreta jartzen badugu, idazle asko dira hezkuntzan poesia bazterreko generoa dela diotenak. Bilbaok (ap. Ugarte 2018) dioen bezala, haurrak jaiotzetik daude poesiarekin kontaktuan: hitzekin jolas egiten dute, lo kantak abesten zaizkie... eta irakurtzen irakasten zaienean eteten omen da hurrek poesiarekin duten harremana eta katea; izan ere, narrazio testuak irakurtzera bideratzen ditugu haurrak, eta gerora, beste genero batzuk erakusten zaizkie, gehienetan poesia albo batera utziz.

Poesiaren irakaskuntza urria argudiatzeko, adituek diotenez, askok poesia ulertzea zaila delako aitzakia erabiltzen dute: “haurren ulermen gaitasunik ezaren aitzakian, sarritan poetikotasuna baztertzen baita testuetan, hizkera estandar eta argiaren alde jokatzuz” (Etxaniz 1997b: 74). Hala ere, ez du zertan horrela izan. Horretan, Etxanizek (1997b) testuen aukeraketaren garrantzia azpimarratzen du: “Literatur testuak irakurlearen

irudimena harrapatu behar du, ekintza aktibo eta sortzailea izanik, sormenean labur edo luze izan daiteke irakurlearentzat, baina inola ere ez aspergarria eta nekagarria, horrela jazoz gero irakurleak utzi egingo baitio irakurketari” (1997b: 73). Gainera, poesian arreta jarritz, autoreak gaineratzen du testuaren funtzio poetikoa nagusitzen denean, testua anbiguoagoa izango dela, baina ez dela galtzen, baizik eta itxuraldatzen. Horrek irakurketa berezia eskatzen dio irakurleari, eta hori landuz ikasten da.

Honi lotuta, Iserrek (1987) poesia testuinguruan kokatzeak duen garrantzia azaltzen du. Hau da, berak azaltzen duenez, literatur lanek bi mutur dituzte: artistikoa eta estetikoa. Lehena idazleak sorturikoa litzateke, eta estetikoa, berriz, irakurleak eginiko konkrezioa litzateke. Konkrezio horretarako, haurrak literatur egiturak ezagutu behar ditu, eta lantzen diren gaiak eta historiari eta gizarteari buruzko aipamenak ere bai; hots, egokitasuna eman behar da literatur testuaren eta haurraren artean konkrezioa gauza dadin. Irakurleak obraren esanahia jasotzeko, ulertzeko eta harekin harremana edota gertutasuna lortzeko. Beraz, Bilbaok (ap. Ugarte 2018) dioen bezala, poesia zerbait ludikoa eta jostagarria izan daiteke. Baina hori gertatzeko eta haurra edota gaztea poesiarekin konektatzeko, garrantzitsua da poesia modu egokian lantzea: testu egokiak aukeratuz, poesia testuinguruan kokatuz, jarduera desberdinak bilatuz... ikasleek beste ikuspegi batez ikus dezaten testua eta arrotza edota zaila ez ikusteko. Garrantzitsua da ikasleei poesiarekiko beldurra kentzea, eta poesiaren abantailak erakusteko jarduerak ongi lantzea.

#### **1.4. Literaturaren garrantzia bai bizitzan eta baita hizkuntzaren irakaskuntzan ere**

Arestian aipatu bezala, poesia maiz bazterrean geratu den generoa da, gazteen zein helduen artean. Bilbaok (ap. Ugarte 2018) azaltzen duen moduan, haurra jaiotzen denetik harremanetan dago poesiarekin; hitz-jokoarekin, lo kantekin... baina gerora, irakurtzen ikasten dutenean narrazioak irakurtzera bideratzen ditugu, eta gerora beste testu-genero batzuetara: eleberria, argudiozko testuak... poesiari garrantzia eta lekua kenduz. Hori dela eta, gehiegi lantzen ez dugun generoa denez gero, arrotza eta ezezaguna da askorentzat.

IESO Ochoa De Olza BHI ikastetxeko 4. DBHko ikasleek poesiaren inguruko galdeketa batean, honelako galdera bati erantzun behar izan zioten: “poesia gustuko duzu? Zergatik?”. Besteak beste, honelako erantzunak jaso ziren:

*Poesiarekin gozaten eta ikasten: poesia lantzeko proposamen didaktikoa*

- “Ez, aspergarria iruditzen zaidalako”
- “Ez dakit, ez dudalako asko ezagutzen”
- “Ez, ez dudalako ulertzen esaten dutena”
- “Bai, espresatzeko modu polit bat delako”
- “Bai, hausnartzen laguntzen duelako”
- “Bai, hitzetan errefuxiatzeko aitzakia delako”

Ikus dezakegunez, erantzun desberdinak jaso ziren. Dena den, iritzi desberdinak egon arren, poesiaren ezagutza zabalegia ez dutela aipatu zuten gehienek, eta erantzunak ikusita hori baieztatu daiteke.

Poesiaren balioa eta bizitzan duen lekua gutxietsi egiten da gizartean, helduen zein gazteen aldetik, Morenok (1998: 21) argi uzten duen bezala: “indiferencia absoluta y, en cantidad de casos, desprecio infundado”.

Goizane Landabasok (ap. Ibargutxi 2015) hauxe dio: “Poesia, leku guztietan dago”, eta Uribe (ap. Luzán 2006) gauza bera azaltzen du: “la poesía se ha refugiado demasiado en los libros, y existe también la poesía de los recitales, en Internet, en las canciones”.

Nerabearoa garai konplexua da askorentzat. Biologikoki aldaketa handiak ematen dira giza gorputzean garai honetan, eta nerabeek askotariko emozioak sentitzen dituzten etapa dugu. Gazteek garai honetan zalantza handiak dituzte, galduta sentitzen dira, etengabe erantzunen bila dabiltza, justiziaren kontzeptuak indarra hartu eta bidegabekeriak salatzen dituzte, zalantza existentzialak dituzte eta eta NI-tasunean murgildurik bizi dira. Gainera, inguruan dutenari buruz sakon hausnartzen dute: laguntasuna, gizartea, giza-existentzia, maitasuna, sexualitatea...

Sentimendu horiek bideratzen laguntzeko poesia irtenbide eta tresna indartsua eta interesgarria izan daiteke. Izan ere, Sastrek (ap. Santiago 2013) dioen bezala; “La poesía es una forma de desahogarse, de llorar, de curarse”. Norberak bere burua hobe ezagutzeko balio du poesiak. Esperimentazioa da, eta beste batzuek idatzitako hitz horietan guk azalpenik eman ezin diezaiokegun horri esanahia aurki diezaiokegu: “encontrar sentimientos con los que poder identificarte” (Luzán 2006).

Batzuetan nerabeei zaila egiten zaie sentitzen dutena ulertzea, edota hori partekatzea eta barrutik ateratzea; horri hitzak eta esanahia ematea. Nerabeek horretarako bilatzen duten gune edo txoko pribatua poesia izan daiteke; hots, sentitzen dutena bideratzeko leku

*Poesiarekin gozaten eta ikasten: poesia lantzeko proposamen didaktikoa*

ezkutua, intimoa, berea. Haatik, arestian esan bezala, irakurtzen ikasten dugunetik, poesia txokoratzen dugun, edo diguten generoa denez, gerora, guk ere bazterrean uzten dugu, eman diezagukeen laguntza ezagutu gabe.

Bizitzan sentitzen ditugun emozio desberdinak hobe kudeatzen laguntzeaz gain, beste abantaila batzuk ere baditu: adibidez, adituek esanda, poesia hizkuntza gaitasuna handitzeko genero aberatsa da. Alde batetik, hizkuntza sinbolikoa eta abstraktua lantzeko tresna eta baliabide ezin hobeak eskaintzen dizkigu. Bestetik, gauzak modu desberdinetan adierazten ikasteko lagungarria den generoa dugu. Halaber, emozioak eta sentimenduak adieraztea batzuetan kostatu egiten zaigu; batzuetan ez dakigu sentitzen duguna hitzen bidez azaltzen, eta poesiak jardun horretan lagun diezaguke. Gainera, hizkuntzan arreta jarriz, inguru honetan maiz D ereduaren eskolatuak diren haurren ama hizkuntza gaztelania dugu, eta sentimenduak euskaraz adieraztea zail egiten zaie, ez baita eguneroko jardunean ikasten den lexikoa. Hori dela eta, poesiaren garrantzia are handiagoa da hau landu nahi badugu, hezkuntzan ohikoa den hiztegiak gain, emozioen eta sentimenduen adierazpenarekin loturik dagoena ere antzeko. Honi lotuta, oso baliabide aberatsak erabiltzen dituzten poesiak, hizkuntza gaitasuna hobetzeko oso aproposak direnak: hiztegi aberatsa, sinonimia, hitz-jokoak, kateatzeak, metaforak, errimak, bestelako errekurtso literarioak...

Gaitasun hauez gain, ikasleek sormena ere lantzen dute. Poesiarekin eta hizkuntzarekin jolasean hastean irudimena erabiltzen dute, eta beraz, Bilbaok (ap. Ugarte 2018) dioen bezala, poesiak irudimena elikatzeke ere balio du.

Azkenik, ahozko gaitasuna lantzeko ere oso egokia da genero hau, poesia irakurtzerakoan alderdi ugari hartu behar direlako kontuan. Ángel Gonzálezek (ap. Luzán 2006) dioen bezala “El ritmo, la tonalidad en las palabras, la musicalidad en el discurso..., todo eso es muy importante en la poesía”. Beraz, poesiarekin lan egin dezakegu ikasleek euskaraz daukaten ahozko gaitasuna hobetzeko.

Amaitzeko, aurretik esandako guztia nolabait laburbiltzearen eta poesiak bizitzan eta hizkuntzan duen garrantzia azpimarratzearen, hona hemen hainbat poetak poesiari buruz esandakoak:

“Es algo que anda por las calles. Que se mueve, que pasa a nuestro lado. Todas	García Lorca (1922tik aurrera, ap. Seoane 2017)
--	---

las cosas tienen su misterio, y la poesía es el misterio que tienen todas las cosas (...) no tiene límites”	
“Poesía debe ser comunicación/penetración/emoción/hacer pensar/pelizar y crecer en la espontaneidad”	G. Fuertes (1995)
“Poesia bizitzeko gogo bat eta Mundua sentitzeko modu bat da. (...) norbera bere egiarik biluzienari hitzaren bidez hurbiltzen dela”	Borda (ap. Urkizu 2000)
"Ezin esan dena esaten saiatzea da poesia"	X. Lete (ap. Murua 2010)
“Poesia bada jolasa ere, izan daiteke esperimantazioa, musika...(…) ahotsaren benetakotasuna”	Meabe (ap. EIE 2010)
“La poesía es una forma de desahogarse, de llorar, de curarse”	E. Sastre (ap. Santiago 2013)
“Poesia bizitza da. Bizitza baino gehiago, bizitza eta gehiago”	K. Uribe (ap. Alcayaga 2013)
“Mundu ikuskera berriak irekitzen ditu, mundu berriak”	L. Bilbao (ap. Ugarte 2018)

## 2. ATAL PRAKTIKOA

### 2.1. Nire proposamena eta helburuak

Aurretik azaldu den bezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan poesia bazterrean geratzen den generoa da. Egia da, Gaztelania ikasgaietan poesia gehiago lantzen dela orokorrean, espainiar idazle zaharren bidez, horien artean, Machado. Aldiz, euskara ikasgaietan oso gutxi lantzen den generoa da, eta batzuetan gainetik ere landu egiten ez dena. Honen arrazoiak asko izan daitezke: maiz, irakasleak gehiegi ezagutzen ez duen generoa da eta ez da hori ematen ausartzen; beste batzuetan, nerabeei poesia aspertuko dielakoan ere azkar lantzen da, edota serioagotzat diren testu-generoei heltzea nahiago

*Poesiarekin gozaten eta ikasten: poesia lantzeko proposamen didaktikoa*

izaten dute... arrazoiak arrazoi, orokorrean albo batera uzten den generoa dela esan daiteke.

Hori dela eta, jarraian poesia lantzea helburu nagusi duen unitate didaktiko bat aurkeztuko da. Gaia hautatzearen arrazoi nagusia, gutxi, eta batzuetan desegoki lantzen den generoa jorratzeko proposamena egiteaz gain, nerabeentzat poesiak izan ditzakeen abantailak agerian uztea da; hots, literaturaren bidez (kasu honetan poesiaren bidez) ikasleekin gai desberdinak lantzeko eta ikasleak nolabait laguntzeko aukera dagoela erakustea da.

Unitate didaktikoa osatzen duten jarduerak poesia lantzea, ikastea eta gozatzea jomuga izateaz gain, jarduera bakoitzak, bere horretan, beste helburu batzuk ditu.

Lehenik eta behin, poesia gaur egun bizitzako hainbat esparrutan topa daitekeela erakutsi nahi zaie ikasleei, poesiak mundu modernoan bere lekua baduela ikus dezaten.

Bigarrenik, irakasleak poesiaren ezaugarriak teorian erakutsi beharrean, generoaren ezaugarriak ikasleek beren kabuz aztertzea da beste jarduera batzuen helburua.

Bestetik, landuko diren edukiei dagokionez, alde batetik, Etxepare eta Sarrionandia euskal autore ezagun eta goia jo dutenak ezagut ditzaten da beste jarduera baten helburua; honekin batera, Etxeparek euskararen alde egindako apustu ausarta ezagutzera eman nahi da, ikasleek historian zehar euskararen egoera zein izan den eta izan duen aldaketa ezagut dezaten, honekin, euskararekiko kontzientzia pixka bat ere izan dezaten. Sarrionandiaren testuingurua ere landuko da, eta autore honen bizitzari loturiko kartzelako poema labur batzuk ere, emozio desberdinak lantzen dituztenak. Helburua ikasleek Sarrionandia nor den jakin dezaten eta kartzelari aurre egiteko poesiak emandako laguntzaz ohartzea da. Modu honetan, poesia egoera zenbaiten aurrean irtenbide edo arnasa-gune izan daitekeela erakutsi nahi da; emozioak barrutik ateratzeko bidea.

Emakumezko poesiari dagokionez, emakumezko idazleen poesia lanek 70. hamarkadan lortu zuten bultzada, iraultza eta askatasuna landuko da. Horretarako, A. Urretabizkaiaren *Maitasunaren Magalean* (1982) poesia landuko da batetik, eta eguneratuagoa den L. Bilbaoren *Ilargizko bularrak* (2006) poesia bestetik. Modu honetan, Urretabizkaiak eta Lasak 70. mendean hasi zuten poesigintza iraultzaileak oraindik ere indarra hartzen ari dela erakutsi nahi zaie ikasleei, emakumezkoek

*Poesiarekin gozaten eta ikasten: poesia lantzeko proposamen didaktikoa*

egindako lan eta esfortzua zein izan den ezagut dezaten eta horrekiko kontzientek izan daitezen; alegia, emakumeak literaturan eta beste arloetan egin duen esfortzua erakutsi nahi zaie poesigintzaren bidez.

Bestetik, haiek ere poesiarekin goza dezaten jarduerak egingo dira: haien izenen hizkiekin beraien nortasun edo izaera deskribatzeko ariketa, kaligramak, collage poetiko bat... Jarduera hauen helburua, hirukoitza da: alde batetik, ikasleen gozamina bilatu nahi da eta ludikoagoak diren jardueren bidez. Honela, ikastearekin batera, poesiak jolaserako aukera ematen duela erakutsi nahi zaie. Bigarren helburua, beren sentimenduak eta emozioak agertzea, edota behintzat, horiek ezagutzen laguntzea da. Aurretik esan bezala, nerabezaroa garai konplexua da eta maiz ikasleek ez dakite sentitzen dutena ateratzen edota espresatzen. Jarduera hauen bidez beren sentimenduak atera ditzaten erdietsi nahi da, jarduera ludikoagoen bidez prozesu hori errazagoa izango baita. Azkenik, musikaren eta kanten bitartez egindako jarduerarekin ikasleek poesia lantzeko eta gozatzeko aukera izango dute, eta honekin batera, euskal musikaren mundua eta kultura ere ezagutuko dituzte.

Azkenik, taldeka poesia musikatu bat edo kanta bat sortu beharko dute, ikasitakoa praktikan jarritz. Modu honetan, aurretik landutakoa erreparatuko dute eta haiek sortzaile bilakatuko dira. Taldeka egingo den jarduera denez gero, ikasleek talde-lanean lan egiten ikas dezaten lortu nahi da, eta bakoitzak sentitzen duena gainerakoei azaltzeko konfiantza hartzea, guztien artean, poesia edo kanta bat sortzeko.

Kontuan hartu behar da, jarduera hauetan guztietan, esandakoaz gain, ikasleek euskara bera ere landuko dutela: ulermena, entzumena, mintzamina zein idazmina. Gainera, jarduera guztiak desberdinak dira: guztiek parte-hartzea eskatzen dute, gauza desberdinak lantzen dituzte, teoria eta praktika uztartzen dute... honela ikasleentzat klaseak eta edukiak eramangarriagoak eta erakargarriagoak izango dira. Kontuan hartu behar dugu ikasleek egunero 6 ordu ematen dituztela eserita etengabeko solasaldiak entzuten, eta klase dinamikoagoak eta desberdinak behar dituztela arreta gehiago jartzeko.

## **2.2. Testuingurua**

Proposaturiko unitate didaktikoak 9 saio irauten du. Hala ere, Ezkaba auzoan dagoen IESO Ochoa de Olza BHI ikastetxean 2 saio eta erdi lantzeko aukera egon da. Horien



azalpena ondoren emango da, eta hori dela eta, ezinbestekoa da laburki ikastetxearen testuingurua aurkeztea:

IESO Ochoa de Olza BHI Ikastetxeak 2012an ireki zituen ateak lehen aldiz. Institutuak izen hori hartu zuen Iñaki Otxoa de Olza Segin (Iruñea 1967 – Annapurna 2008) eskaladako eta alpinismoko irakasle eta mendi-gidari zenaren omenez. Ikastetxea Iruñeko Ezkaba auzoan kokatzen da, Antsoain eta Ezkabarte udalerrien artean. 2000. hamarkadan sorturiko auzo berria denez, zerbitzu publiko eskasa dago eta bertako biztanleek Antsoain edo Txantreara jo behar dute maiz.

Ikastetxe honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen da; A, G eta D eredu linguistikoetan. Honek berezitasun batzuk izatea eragiten du; bai ikastetxearen izaerari, bai zuzendaritza taldeari eta baita departamentuen funtzionamenduari ere.

25/1997 Foru Dekretuak dioen bezala, DBH bakarrik eskaintzen duten ikastetxeak nahitaez beste ikastetxe batzuei atxikita egon beharko dira. Hala, gaur egun IOO<sup>2</sup> Institutua Txantrean dauden D ereduko Eunate ikastetxeari eta A-G ereduko Irubide ikastetxeei atxikita dagoela jakin behar da.

Iñaki Ochoa de Olza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia eskaintzen dituen institutu publikoa da. Bertan, aurretik aipatu moduan eredu linguistiko desberdinak daude: D, A eta G.

Eredu hauez gain, behar bereziak dituztenen ikasleentzako ikastetxeak bi programa eskaintzen ditu: Curriculum Bereziko Unitatea (CBU) eta Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programa (IEHP).

## **2.3. Metodologia eta baliabideak**

### **2.3.1. Metodologia**

Unitate didaktikoa planifikatzeko irizpide metodologiko desberdinak hartu dira kontuan:

---

<sup>2</sup> IESO Iñaki Ochoa de Olza DBHI

- **Helburuak:** proposatutako jarduerak, poesia lantzeaz gain, hurrengo helburuak lortzeko prestatu dira:
  - Auto-estima sortu
  - Begirunea landu
  - Sexismoa baztertu
  - Talde lana bultzatu
  - Irakurzaletasuna piztu
  - Aho adierazpena garatu
  - Komunikazioa areagotu
  - Hizkuntza landu eta euskara maila hobetu
  - Euskal kultura landu
- **Aniztasuna lantzeko metodologia:** jardueretan bakarka zein taldeka egingo dute lan. Ikasleen taldekatzeak egiteko aniztasuna kontuan hartuko da eta talde orekatuak egingo dira. Tutorearen gomendioei jarraituz osatuko ditu irakasleak taldeak, edo bestela, hurrengo irizpideei jarraituz sortuko ditu: gaitasun handia duten eta laguntza ematen duten ikasleak arazo gehiago dituztenekin taldekatuko dira; kultura eta ama hizkuntza desberdina dutenak taldeetan nahastuko dira, ikasleen gaitasuna ez ezik, jarrera ere kontuan hartuz taldekatuko dira...  
Arazo nabarmenik duen ikaslerik egonez gero, PT<sup>3</sup>ari laguntza eskatuko zaio, eta posible bada, PTa gela barruan emango dio ikasleari laguntza, inklusioa bultzatuz honela.
- **Denboraren antolaketa:** kontuan hartuko da jarduerak osatzeko. Osotara 9 saio iraungo du unitate didaktikoak, eta saio bakoitzak 55' iraungo du.
- **Ebaluaziorako printzipioak eta prozedurak:** hauek landutakoaren araberakoak izango dira, eta egindako lanen bidez eta azken proiektuaren araberakoak zein jarreraren araberakoak izango dira. (UDaren barruan, 21.orrrialdean sakonago azalduko dira).
- **Metodologia komunikatiboa:** irakasleen eta ikasleen eginkizuna garbi egongo da hasieratik; hau da, irakasleak lehenik eta behin UDan landuko dituzten edukiak eta azkenik egin beharko duten proiektua azalduko dizkie ikasleei. Horretaz gain, klase bakoitzaren hasieran ikasleei klase horretan egingo dituzten jardueren azalpena emango die. Garrantzitsua da ikasleek egingo duten lana

---

<sup>3</sup> Pedagogo Terapeuta edo heziketa bereziko irakaslea

ezagutzea, haiek ere beren burua eta behar dituzten materialak, denbora... etab. antolatzeke.

- **Galdetegia:** poesia lantzen hasi aurretik, ikasleei galdetegi bat pasako zaie poesiaren inguruan dituzten iritziak ezagutzeko. Galdetegia, Bai/Ez; Ezer ez/Gutxi/Nahiko/Asko; eta galdera irekiez osatuta dago. Modu honetan, estatistikak ateratzeaz gain, ikasleen arrazoiak ere ezagutzeko aukera dago. Galdetegi hau Practicum IIan landu da, eta erantzun batzuk nabarmendu nahiko nituzke: guztiek euskara ikasgaien poesia gutxi lantzen dutela adierazi dute, eta ez dituzte poeta edo poesia euskaldun askorik ezagutzen; gaztelaniaz, aldiz, bai. Bestetik, ikasleen erdiak gutxi gorabehera poesia interneten edo liburuetan bakarrik topa daitekeela uste du. Hirugarrenik, gustuei dagokionez, askotarikoak dira; batzuei gustatu egiten zaie poesia, eta beste batzuei, berriz, ez. Beste batzuek, ordea, zalantza adierazi dute ezagutzen ez duten generoa dela argudiatuz. Bestetik, poesiaren funtzioari buruz galdetu zaienean ez dute ezagutza handiegirik erakutsi; sentimenduak adierazi edota hitzekin egindako artea dela aipatu dute nahikotxok, baina ez dute bestelako erantzun zabalagorik eman. Azkenik, klase erdiak poesia gehiago lantzeko nahia adierazi du, baina ez teoria hutsean oinarritutako klaseen bidez.
- **Auto-ebaluazioa:** amaieran, ikasleek eskuratu dituzten jakintzak ikusteko hurrengo galderak osatutako auto-ebaluazioa erantzungo dute:

- |  |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Unitatea hasi aurretik eta behin unitatea amaituta, zer ikasi duzu?</li> <li>○ Zertan hobetu duzu (zerbaitetan hobetu baduzu)?</li> <li>○ Zer izan da zuretzat interesgarriena unitate didaktiko honetan?</li> <li>○ Zein ariketetan ikusi duzu jakintza gehien eskuratu duzula? Eta gutxien?</li> <li>○ Zein izan dira unitatean zehar izan dituzun arazo zein zailtasunak?</li> <li>○ Horiek hobetzeko modurik bururatzen al zaizu?</li> <li>○ Zer landu nahiko zenuke gehiago/gutxiago?</li> <li>○ Nola sentitu zara jarduerak egiten? Uneren batean deseroso sentitu al zara? Adierazi noiz, zertan.</li> <li>○ Gustura parte hartu duzu ariketetan? Zeinetan gehien?</li> <li>○ Poesiaren gainean lehen zenuen iritzia eta orain zenuen iritzia aldatu al da? Zertan?</li> </ul> |
|--|

- Behin unitate didaktikoa amaituta, zertarako balio du poesiak, zure ustez?
- Beste zerbait lantzeko gogoekin geratu zara? Zer?
- Irakaslearen jarrera nolakoa iruditu zaizu? Zer egin lezake hobetzeko?

### 2.3.2. Baliabideak

Baliabide desberdinak erabiliko dira jarduerak egiteko:

- **Pantaila digitala edota proiektorea eta Power Pointak:** ia-ia jarduera guztietarako erabiliko dira. Hauek ikasleei azalpenak emateko erabiliko dira, eta eskematikoak eta argiak izango dira. Teoria barnebiltzeaz gain, poesien adibideak edota bideoak, abestiak eta errezitalen grabaketak ere agertuko dira, ikasleen arreta mantentzeko eta landuko diren edukiak adibideen bidez argiago ulertzeko eta barneratzeko.
- **Fitxak:** ia-ia klase guztietan erabiliko dira. Teoria lantzeko izango dira batzuk, eta beste batzuk, ikasleei poesien adibideak banatzeko edota haiek egin behar dituzten jardueretarako izango dira.
- **Ordenagailuak:** IKT<sup>4</sup>ak bultzatze aldera, azken proiekturako ezinbestekoa izango dute ordenagailua, haiek egindako poesia edota kantua bideo batekin uztartu beharko dute eta. Irakasleak hori egiteko behar dituzten azlpenak emango ditu.
- **Kartulinak eta bestelako materialak:** collage bat egin beharko dute, eta horretarako kartulinak eta bestelako materialak eramango ditu irakasleak (oihalak, koloretako errotulagailuak, poesiak...). Ikasleek argazki inprimatuak eta abesti baten letra eraman beharko dituzte.

### 2.4. Unitate didaktikoa

**Irakasgaiak:** Euskara eta Literatura **Maila:** DBH 4. maila **Saio kopurua:** 9 (ikasturtearen lehen hiruhilekoan).

---

<sup>4</sup> Informazio eta Komunikazio Teknologia

**Proposamenaren testuingurua:** literaturan, orokorrean, poesia maiz bazterrean geratzen den generoa da, eta ikastetxeetan poesia euskaraz ez da gehiegi lantzen. Jarraian aurkezten den unitate didaktikoaren helburua ikasleek poesiaren gaineko ezagutza handiagoa izatea, eta emozioak azaltzeko, askatzeko, ulertzeko, sentitzeko... bide polita eta interesgarria izan daitekeela ikastea da. Honekin batera, modu berean, generoa sakonago lan dezaten nahi da, eta euskal literaturako olerkari eta lan batzuk ezagut ditzaten. Gainera, proposatuko diren jarduerekin, hizkuntzarekin etengabeko hartu-emanen egongo direnez (idazten, edota zerbaiten esanahia hausnartzen, irakurtzen, entzuten...) hizkuntza gaitasunak ere landuko dituzte.

#### **2.4.1. Curriculuma: 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa**

- **Gaitasunak**
  - a) Hizkuntza komunikazioa.
  - b) Gaitasun digitala.
  - c) Ikasten ikastea.
  - d) Gaitasun sozial eta zibikoak.
  - e) Ekimena eta ekintzailtza.
  - f) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

- **Etapako helburuak**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak ikasleengan gaitasunak garatzen lagunduko du, ondokoak egiteko:

**a)** Beren betebeharrak arduraz bereganatzea, besteekiko errespetua gordez beren eskubideak ezagutu eta gauzatzea; pertsonen eta taldeen artean tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzea; elkarrizketa gauzatzea giza eskubideak eta emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna sendotuz, horiek guztiak gizarte plural batean amankomunak diren balioak direlako; eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko prestatzea.

**b)** Diziplina, ikasketa eta lanerako azturak, bakarkakoak eta taldekoak, garatu eta sendotzea, ikasteko atazak egoki burutzeko nahitaezko baldintza modura eta nor bere burua garatzeko baliabide gisa.

**c)** Sexuen arteko aldeak eta sexuen arteko eskubideen eta aukeren berdintasuna balioetsi eta errespetatzea. Pertsonen bazterkeria arbuiatzea, sexuagatik edo bestelako

*Poesiarekin gozatzen eta ikasten: poesia lantzeko proposamen didaktikoa*

edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik. Gizonen eta emakumeen arteko bazterkeria dakarten estereotipoak arbuiatzea, baita emakumearen kontrako indarkeria agerpen oro ere.

**d)** Gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren eta besteekiko harremanen esparru guztietan, indarkeria, edozein motatako aurreiritziak eta portaera sexistak arbuiatzea eta, orobat, gatazkak modu baketsuan ebaztea.

**e)** Oinarrizko trebetasunak garatzea informazio iturrien erabileran, zentzu kritikoz, ezagutza berriak eskuratzeko. Teknologien eremuan oinarrizko prestakuntza eskuratzea, bereziki informazio eta komunikaziokoetan.

**g)** Espiritu ekintzailea eta norberarenganako konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko gaitasuna garatzea.

**h)** Gaztelaniazko eta, kasua bada, euskarazko testu eta mezu konplexuak, ahoz eta idatziz, zuzen ulertu eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea.

**m)** Sormen artistikoa preziatzea eta agerkari artistiko desberdinen hizkuntza ulertzea, adierazpeneko eta irudikapeneko askotariko baliabideak erabiliz.

- **Edukiak eta ebaluazioa curriculumari jarraikiz:**

Ondorengo taula, curriculuma oinarri harturik, ikasleek unitate didaktikoaren bidez landuko dituzten edukiak, eta horien araberrako ebaluazio irizpideak eta ebaluatu beharreko ikaskuntza estandarrak azalduko dira.

- **Edukiak eta ebaluazioa curriculumari jarraikiz:**

EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	EBALUATU BEHARREKO IKASKUNTZAKO ESTANDARRAK
<b>1. MULTZOA: AHOZKO KOMUNIKAZIOA. ENTZUTEA ETA ULERTZEA, HITZ EGITEA ETA ELKARRIZKETAN JARDUTEA</b>		
<p><b>Entzutea eta ulertzea:</b> Ahozko testuak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, erabilera esparruari dagokionez: esparru pertsonala, akademikoa, soziala eta lan esparrua. -Ulermen orokorra: hizlariaren komunikazio asmoa atzematea, testuko gaia zehaztea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea eta informazio zehatze eskuratzea.</p>	<p>2. Ahozko testuak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu orokorra atzemanaz, informazio esanguratsua identifikatuz, informazio zehatzak erauziz, inferentziak eginez, hizlariaren jarrera zehatzuz eta formaren eta edukiaren zenbait alderdi baloratuz. 5. Ahozko hizkuntza baloratzea ikasteko tresna gisa, ezagutzak, ideiak eta sentimenduak transmititzeko bitarteko gisa eta jokabidea arautzeko tresna gisa.</p>	<p>1.1 Informazioa aurkitu eta eskuratzen du. 1.2 Testua orokorrean ulertzen du 1.3. Integratzen eta interpretatzen du. 1.4. Testuaren edukiaren gainean hausnartzen du.</p>
<b>2. MULTZOA: IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA. IRAKURTZEA ETA IDAZTEA</b>		
<p><b>Testu idatziak irakurri, ulertu eta baloratzea:</b> -Ulermen orokorra: hizlariaren komunikazio asmoa atzematea, testuko gaia zehaztea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea eta informazio zehatza eskuratzea -Testuaren zentzua interpretatzea: hizlariaren jarrera zehaztea Irakurketan kritika eta hausnarketara progresiboki bideratzen duen jarrera, ideiak modu arrazoituan antolatuz eta azalduz, gainerakoen ideiak errespetatuz. <b>Idazketa prozesu gisa:</b> Idatzizko testugintzarekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, norberaren esperientziak eta ezagutzak komunikatzeko modu gisa, eta aberastasun pertsonaleko eta profesionaleko tresna gisa.</p>	<p>3. Zeinahi testu mota edo lan literarioen irakurketaren aurrean jarrera kritikoa izatea, irakurketa hausnartuaren bidez, adostasun edo desadostasun jarrerak identifikatu ahal izateko, une oro gainerakoen iritziak errespetatuz. 7. ikaskuntzak eskuratzeko eta garapen pertsonala estimulatzen tresna gisa, irakurketaren garrantzia baloratzea.</p>	<p>1.3 Testua orokorrean ulertzen du: -Testuetako informazio esanguratsua ondorioztatzen du, ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak identifikatuz eta horien arteko erlazioak sortuz. - Testua egituratzen duten atalak eta testuaren eta testuinguruaren arteko harremana bereizten ditu. 7.3 Idazketaren aurrean sormen jarrera baloratzen eta txertatzen du progresiboki. 8.1 Ikaskuntzak eskuratzeko eta garapen pertsonala estimulatzen</p>

		tresna gisa, idazketaren garrantzia baloratzen du. 8.2 Idazketaren aurrean sormen jarrera baloratzen eta txertatzen du progresiboki.
<b>3. MULTZOA: HIZKUNTZAREN EZAGUTZA. HIZKUNTZAREN IKASKUNTZARI BURZKO GOGOETA</b>		
Hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko gogoeta: - Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea.	12. Norberaren hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza izatea.	12. Bere hizkuntzaren erabilera hobetzeko gaitasunean konfiantza du.
<b>4. MULTZOA: HEZKUNTZA LITERARIOA</b>		
<p><b>Irakurketa plana</b> Euskal literaturako, literatura unibertsaleko eta gazte literaturako lanen irakurketa librea, plazer iturri gisa, norberaren burua aberasteko eta mundua ezagutzeko, norberaren gustu eta interes literarioen garapena eta irakurketako autonomia garatzeko.</p> <p>Asmo literarioa eta didaktikoa duten euskarazko testuak irakurtzea eta ulertzea, egilearen asmoa, gaia, beren generoko ezaugarri formalak eta edukiaren eta testuinguru soziokulturalaren arteko erlazioa antzemanaz. Euskarazko olerki garaikideen irakurketa iruzkindua egitea eta errezitatzea, arreta berezia eskainiz sinbolismoak eta abangoardiek hizkuntza poetikoari egindako ekarpenei, olerkietan elementu sinbolikoen eta baliabide erretorikoen eta metrikoen funtzioa baloratzuz eta hizkuntza poetikoa baloratzuz sentimenduak adieraztearen zerbitzura dagoen tresna gisa. Zenbait poeta garaikide eta haien euskarazko lanak ezagutzea, egilearen asmoa, gaia, generoaren ezaugarri formalak eta edukiaren eta testuinguru soziokulturalaren arteko erlazioa atzemanaz.</p> <p>Literatura idatziko egile eta lan nagusiak ezagutzea (XVI.-XIX. mendeak): Etxepare.</p> <p><b>Sorkuntza:</b> asmo literarioko testuak idaztea, XX. mendeko testuen irakurketatik abiatuta, harturiko generoen ohikoak izaten diren konbentzioak erabiliz eta xede ludiko eta sortzailearekin.</p>	<p>1. norberaren gustu eta afizioetatik hurbileko aldi guztietako euskal literaturako, literatura unibertsaleko eta gazte literaturako lanak autonomiaz irakurtzea eta ulertzea, irakurzaletasuna erakutsiz.</p> <p>2. XX. Eta XXI. mendeetako euskarazko poemak irakurtzea eta iruzkintzea, egilearen asmoa, gaia eta generoaren ezaugarriak antzemanaz, edukia testuinguru soziokultural eta literarioarekin erlazionatuz.</p> <p>4. Testu poetikoak idaztea XX. Eta XXI. mendeetako testuen irakurketatik abiatuz, generoko konbentzio formalei jarraikiz eta asmo ludikoarekin eta sortzailearekin.</p> <p>5. Literatura idatziko egile eta lan nagusienak ezagutzea (XVI.-XIX. mendeak): Etxepare</p>	<p>1.1. Interes maila gero eta autonomia geroz eta handiagoz irakurtzen eta ulertzen du.</p> <p>2.1 XX. Eta XI. mendeetako poemak ikertzen ditu, horien gaineko iritzi pertsonal arrazoituak ematen ditu.</p> <p>2.2 Gai topikoen tratamenduak ulertzen eta interpretatzen ditu.</p> <p>4.1. Testu poetikoak idazten ditu emandako ereduetatik abiatuz, generoaren konbentzioei jarraituz eta asmo ludiko eta sortzailearekin</p> <p>5.1 Literatura idatziko autore nagusiak ezagutzen ditu: Etxepare</p> <p>6.1 Egindako irakurketen gaineko lan txikiak idazten ditu, ondorioak eta ikuspuntu pertsonal eta kritikoak emanez eta esan beharrekoak argitasunez adieraziz.</p>



## 2.4.2. Unitate didaktikoaren antolaketa:

<b>HASIERAKO - FASEA</b>	<b>Gaia aurkeztea</b>	<b>HASIERAKO EBALUAZIOA</b>  Ikasleek ebaluazio irizpideak ezagutzea. <b>Ikasleek aurrez duten jabetuntzaz jabetzea.</b>
	Poesiaren gaia aurkezteko, beren bizitzarekin lotura izan dezaketen gauzei buruz hitz egiten hasiko gara, poliki-poliki. Galdetegia pasako zaie dituzten ezagutzak eta iritziak ezagutzeko	
	<b>Unitate didaktikoa aurkeztea</b>	
	Ikasleei zer ikasiko duten eta zertarako ikasiko duten azalduko zaie, haien iritzia eta proposamen posibleak ezagutzeko eta ikasleek klaseen asmoa eta funtzio eta helburuak zeintzuk diren jakiteko.	
<b>GARAPEN - FASEA</b>	<b>Ikaskuntza berriak txertatzea</b>	<b>EBALUAZIO HEZIGARRIA ETA PROZESUALA</b>  Ikasleak egiten ari diren ikaskuntzaz jabetzea eta prozesua behatzea
	Jarduera desberdinen bidez poesia genero bezala ezagutu (egitura, ezaugarriak, funtzioak...), euskal poesia eta poetak ezagutu eta poesiaren gaineko ikuspegi berria bereganatuko da.	
	<b>Ikaskuntzak aplikatzea eta finkatzea</b>	
	Poesiaren gainean emandako azalpenak eta teoriak balioztatzen arguentuak egiteko aukera ematen duten jarduerak: poesien azterketak, abestien azterketak, collagea...	
	<b>Ikaskuntzak egituratzea</b>	
	Jasotako jakintza berria era koherentean erabiltzeko jarduerak: collagea, kaligramak, irudiei loturiko poesiak...	
<b>APLIKAZIO - FASEA</b>	<b>Ikasitakoa aplikatzea eta komunikatzea</b>	<b>AMAIERAKO EBALUAZIOA</b> Prozesuarena Ikaskuntzarena <b>Ebaluazio-irizpideen betetze-maila egiaztatzea</b>
	Aurretik landutako jardueretan barneratutako edukiak praktikan jartzeko azken proiektua: poesia musikatu bat sortu. UDan ikasitakoa erakusteko lana izango da. Eskuratutako jakintza eta trebetasunez oartzeko unea da. Egindako lanaren emaitzak eta ondorioak komunikatzeko jarduerak azkenik, ahozkoa bultzatuz eta ikasitakoaren gainean hausnarketa egiteko aukera emanez.	

Taula honek adierazten duen bezala, ebaluazio jarraitua izango da, eta hiru zatitan bereiziko da: Hasierako Fasea, Garapen Fasea eta Aplikazio Fasea. Bertan, ikasleek jarduera bakoitzaren bidez poesiaren inguruan eskuratzen duten jakintza eta horren aplikazioa kontuan hartuko da. Ebaluazioa, esan bezala, unitate didaktiko osoan zehar gauzatuko da. Aplikazio Faseari garrantzia handiagoa emango zaio, proiektuaren bidez erakutsiko baitute zer ikasi duten eta nola aplikatzen duten. Hala ere, esan bezala, ebaluazio jarraitua izango da eta jarduera guztiak ebaluatuko dira, bereziki ikasleak lortzen duen garapenean arreta jarritz.

### 2.4.3. Jarduerak

#### Hasi aurretik:

Ikasleei lehenik eta behin poesiaren inguruko galderak biltzen dituen galdetegi bat pasako zaie. Modu honetan, ikasleek poesiaren gainean dituzten ezagutzak eta iritziak ezagutzeko aukera izango dugu, eta unitate didaktikoa ere emaitza horien arabera moldatua izango da, behar izanez gero. Hurrengo galderak biltzen ditu galdetegiak:

#### GALDETEGIA

1. Poesiaren gainean duzun ezagutza nolakoa da? Ez dakit zer den poesia, oso txikia, txikia, ertaina, nahiko zabala, oso zabala.
2. Nola definituko zenuke poesia?
3. Poesia klasean landu al duzu noizbait? Erantzuna 'Bai' bada, nola landu duzu? Zein jardueren bidez? Egokiak iruditu zitzaizkizun? Zergatik bai/ez?
4. Nola gustatuko litzaizuke lantzea poesia?
5. Ezagutzen al duzu poetaren bat? Eta poesiaren bat? Erantzuna baiezkoa bada, esan dezakezu zergatik edo nondik ezagutzen duzun?
6. Ezagutzen al duzu euskal poetaren bat? Eta euskal poesiaren bat? Erantzuna baiezkoa bada, esan dezakezu zergatik edo nondik ezagutzen duzun?
7. Eskolan derrigorrezko irakurgaiak irakurri behar dituzu kurtsoan zehar? Zenbat? Zein generotako irakurgaiak irakurri behar dituzue? Narratiba, antzerkia, lirika... Zehaztu ahalik eta gehien zure erantzuna.
8. Eskolaz kanpo, irakurtzen al duzu? Zergatik bai/ez? Erantzuna baiezkoa bada, zein irakurgai mota irakurtzen duzu? Eleberriak, poesiak, ipuinak, antzerkiak, aldizkariak, egunkariak, errezetak...

9. Noizbait irakurri al duzu poesiari eskolak bidalita? Eta zure kabuz?
10. Non uste duzu aurki daitekeela poesia?
11. Gustatzen zaizu poesia? Zergatik bai/ez?

“Metodologia” atalean dagoeneko IESO Ochoa de Olza DBHI ikastetxeko 4. DBHko ikasleen erantzunak azaldu dira. Laburbilduz, euskal poesiaren gaineko jakintza urria adierazi dute denek, eta askok gehiago lantzeko nahia azaldu dute.

### **1. JARDUERA: Zer da poesia? Zer dakizu poesiari buruz?**

Garrantzitsua da, edukiari zuzenean heldu aurretik, klasean giro aproposa sortzea ikasleei gaia aurkezteko. Hurbilpen hori egiteko, egokiena gaia ikasleei beren bizitzarekin zerikusia duen zerbaitekin lotzea da. Kasu honetan, irakasleak etxetik esalditxo edo aipuren bat daraman zerbaitekin eramango du (oihalezko poltsa bat izan daiteke, tazaren bat, jantziren bat...) eta horren inguruan galderak planteatuko dizkie ikasleei.

- ❖ Modan jarri dira azkenaldian oihalezko zorro edo poltsa hauek ezta? Edota tazatxoak... Zuek baduzue horrelakorik? Bai? Eta marrazki edota horrelako mezutxoren bat darama? Eta esalditxo horiek gustatzen zaizkizue? Zergatik? Zuek horrelakorik idatzi duzue inoiz? Adibidez, gu gaztetxoak ginenean, agendetan “ez zaitez inoiz aldatu” edo horrelakoak idazten genizkion elkarri. Zuek? Edota, sare sozialetan argazkien deskribapena egiteko ez duzue horrelako esaldirik idazten?

Behin horri buruz pixka bat hitz eginda, olerki bat irakurriko zaie euskaraz, eta poesiaren inguruko solasaldia edo aurkezpena egingo da ondoren. Horretan, ikasleek poesiaren gainean dituzten ezagutzak eta iritziak ezagutu nahi dira, eta poesiari buruz hitz egiten hasi, gaiari helduz.

- ❖ Zer dakizue poesiari buruz? Eztabaida bat sortuko dugu denon artean klasean, eta poesiari buruz nahi duzuen guztia esan dezakezue; ea zer den zuentzat poesia, ea gustuko duzuen, ea non topa dezakegun...

Ondoren, poesia zer den eztabaidatuko da. Horretarako, autore desberdinek poesiaren gainean esandako zenbait aipu aurkeztuko zaizkie ikasleei, haiek horien gaineko hausnarketa egin dezaten.

- ❖ Badakit poesia definitzea ez dela erraza, hori dela eta, binaka, hainbat autorek (J. Sarrionandia, K. Uribe, G. Fuertes...) emandako definizioak emango dizkizuet. Binaka, definizio horien artean bat edo bi aukeratu behar dituzue, eta ondoren, banan-banan bikote guztiek arbelean itsatsiko duzue aukeratu duzuen (edo dituzuen) definizioa(k), eta aukeraketa horren zergatia azalduko diguzue. Zuek ere zuen ekarpenak gehitu behar dituzue.

### Zer egingo dugu sekuentzia honetan?

Ondoren, unitate didaktikoan landuko diren edukiak eta helburua azalduko zaizkie.

<b>Zer egingo dugu?</b>	<b>Zertarako egingo dugu?</b>	<b>Zer ikasiko dugu honekin?</b>
Poesiaren gaineko galdetegia	Poesiaren inguruan dituzuen ezagutzak eta iritziak ezagutzeko	Aurre-iritzi batzuk beharbada zuzenak ez direla eta hasierako eta amaierako ezagutza alderatuz ikasitakoaz ohartuko zarete
Poesiak inguratzen gaituela ohartu.	Egun funtzio desberdinak dituela ikusteko, eta gizartean leku zabala hartzen duela ikusteko.	Poesia beharbada gustuko duzuela dagoeneko, eta uste duzuen baina leku zabalagoa hartzen duela ikastea.
Poesiaren ezaugarriak ikasi	Generoari dagozkion berezko ezaugarriak ikusteko eta beste genero batzuetatik bereizteko.	Beste generoek bezala berezko ezaugarriak, funtzioak eta abantailak dituela ikasiko dugu.
Euskal gizonezko poeta bi ezagutu: Etxepare, Sarrionandia	Idazle esanguratsu bi ezagutzeko eta poesiarekin zituzten helburuez hausnartzeko	Poesiak helburu eta gai desberdinak izan ditzakeela, eta bere balioak eta onurak dituela
Euskal emakume euskaldunen poesiaren bilakabidea	Euskal emakume poeten izenak eta lanak ezagutzeko eta egin duten lan eta esfortzua ezagutzeko	Euskal emakumearen egoera literaturan zein izan den eta egoera hori

Poesia laburrak sortu (kaligramak, collagea...)	Poesia edonork sor dezakeela ikusteko eta sormen-lan horretan trebatzen hasteko	aldatzeko egin duten lana  Poesia sortzen eta horrekin gozatzen
Poesia kantetan poesia dagoela ikusi eta ezaugarriak eta gaiak antzematen ikasi	Poesia dagoeneko entzuten duzuela ikusteko eta gustatzen zaizuela ohartzeko, eta gai desberdinak lantzeko kanten bidez	Kanten letrak poesia direla eta aukeratutako kantekin gai desberdinak ikasiko dira (EHko egoera, emakume artistaren egoera, auto-estima, heriotza)
Poesia bat sortu	Ordura arte ikasitakoak praktikan jartzeko	Poesia sor dezakezuela eta dibertigarria izan daitekeela, emozioak askatzen eta hizkuntza gaitasuna hobetzen

## 2. JARDUERA: Poesiak ere janzen du mundua

Ikasle askok uste dute poesia liburuetan aurki daitekeela bakarrik. Hala ere, poesiak eremu zabalagoa hartzen du egungo gizarte modernoan, eta maiz, poesia zer den edota zer ez den mugatzea ere ez da erraza. Ikasleei hori erakustea da helburuetako bat; hots, ikasleei egun poesia bizirik dagoela erakutsi nahi zaie, eta bere funtzioak dituela. Modu honetan, ezagutzen dituzten autore zaharretatik kanpo ere poesia badagoela erakutsi nahi zaie.

Horretarako, gaur egun ikus daitezkeen poesien ereduak argazkietan erakutsiko zaizkie. Poesia molde desberdinak izango dira, neurri desberdinetakoak, leku desberdinetan topatzen direnak, hizkuntza desberdinetan idatzirik daudenak...

Jarduera hau egitea komenigarria da, poesia lantzeak orokorrean ikasleengan sortzen duen gogo-eza edo nagi hori saihesteko, eta aurreiritzi edo uste okerrak “zuzentzeko, moldatzeko”.

- ❖ Birgogora dezagun aurreko jardueran planteatutako galdera bat. Zein da poesiaren helburua? Idatz dezagun (edo ditzagun) arbelean eman zen(it)u(z)ten erantzuna(k).

Ondoren klaseko pantailan jarriko ditudan argazkietako esaldiak edota testuak poesia ote diren eztabaidatuko dugu. Bertan, gauza, objektu edota leku

desberdinetan topatutako idatziak ikusiko dituzue: tatuajeak, esaldiak dituzten jantziak, mezutxoak dituzten tazak eta oihalezko zorroak, oin-oharrak dituzten margo-lan edo album ilustratuak, zuek ezagutzen dituzuen pertsonaia ospetsuek sare sozialetan igotako argazkien parean idazten diren mezutxo edo esaldiak...

Banan-banan ikusiko ditugu argazkiak: uste duzue honako hau dela poesia? Begiratu poesiak duen helburuari buruz esan duguna. Betetzen da?

Ohartuz joango zarete poesia zer den eta zer ez den definitzea ez dela beti erraza, ez baitago muga zurrunik, baina dagoeneko adostu badugu poesiaren helburua (adb.: emozioak sorraraztea dela), hauek poesiatzat jo ditzakegu? Adibide gehiago bururatzen zaizkizue? Hala bada, hurbildu ordenagailura eta bilatu irudiak eta azaldu zergatik den hori zuentzat poesia.

- Jarduera hau Ochoa De Olzako 4. DBHko ikasleekin burutu zen: aipatu beharra dago klase erdia izan genuela jarduera hau burutzeko, eta ez genuela eztabaida amaitzeko astirik izan. Ikasle askok argazkietako mezu gehienak poesiatzat jo zituzten, eta poesia espero ez zuten lekuetan aurkitu zuten. Ikasleen parte-hartzea nahiko handia izan zen, eta poesiaren gainean eztabaidatu zuten euren artean. Dena den, batzuen jarrera aktiboa izan bazen ere, beste batzuek ez zuten interesik handiegirik erakutsi.

### **3. JARDUERA: Poesiaren ezaugarriak aztertzen**

Ikasleei azalpen testu bat eta hiru poesia banatuko zaizkie. Helburu, irakasleak berak teoriarik eman gabe, ikasleek bere kabuz poesiaren ezaugarriak bilatzea eta aztertzea da, eta horretarako gai direla ohartzea. Horregatik, 4ko taldeetan banatu eta talde bakoitzari 2 poesia eta azalpen testu bat emango zaizkie aztertzeko. 2 poesiak nahiko desberdinak izango dira, ezaugarri ahalik eta gehien atera ditzaten: errima asonantea, errima kontsonantea eta errimarik gabekoa; bertso-lerro eta silaba kopuru desberdinekoak; baliabide estilistiko desberdinak barnebiltzen dituztenak; gai desberdina lantzen dutenak... gainera, ohikoak diren ezaugarri horiez gain, ikasleei poesia subjektiboa eta muga zurrunik gabeko generoa dela erakutsi nahi zaienez gero, beste ezaugarri batzuk agertuko dira: joku-kromatikoak, zentzumenak, erritmoa, sentsualitatea, sinonimia...

*Poesiarekin gozatzen eta ikasten: poesia lantzeko proposamen didaktikoa*

- ❖ Ondoren 4 testu banatuko zaizkizue. 4ko taldeetan eztabaidatu behar duzue ea testu horiek olerkiak diren ala ez, eta gero, ozen, guztion artean erantzuna eztabaidatuko dugu. Olerkiak diren ala ez argudiatzeko, kontuan hartu behar dituzue; alde batetik aurreko egunean aipatu genituen poesiaren helburuak, eta bestetik; ezaugarriak. Hau da, testu hau olerkia bada, eta aldiz, honako hau ez, zein desberdintasun daude euren artean? Zein ezaugarri ditu testu honek olerkia izateko eta ondokoa ez izateko? Ezaugarriak ikustean, hausnartu behar duzue zein helbururekin erabili dituen autoreak. Bakoitzari sentimendu desberdin bat eragin diezaioke, eta beraz, partaide guztien iritziak bildu. Oroitu poesia subjektiboa dela, ezaugarri asko atera ditzakezuela eta norberak bere irakurketa egin dezakeela. Jolas ezazue poesiekin. Amaieran, ezaugarriak denen artean landuko ditugu.

#### **4. JARDUERA: Euskal gizonezko poeta kuttun bi**

Euskal olerkari bi landuko dira jarduera honetan. Alde batetik, Etxepare; euskaraz lehen liburua egin zuen autorea eta bere lana ezagut ditzaten eta euskarari gorazarrea egiten dion poesiarekin euskarari buruz hausnar dezaten: zenbat lan egin den euskararen alde, zeinen garrantzitsua izan zen idatzira eramatea...

Bigarrenik, Sarrionandia landuko da; egun euskal literaturan izen handiko autorea delako, eta ikasleek, bere istorioa ezagutuz, kartzelako egonaldian sentitzen duena olerkietan nola espresatzen duen ikusteko. Bi olerkariak euren olerkietan zituzten asmoak, helburuak, edota emozioak nola espresatzen dituzten ikusiko dute. Gainera, bi autore hauek klasean bi kanta entzuteko eta klasea pixka bat entretenigarriago egiteko bide ematen digute: Oskorrik *Sautrela* olerkiarekin egindako abestia, eta Kortatu taldearen *Sarri Sarri* abestia. Azkenik ikasleei lana bidaliko zaie: autore baten poesiaren gainean irakurketa iruzkindua egitea eta irakasleari gerora entregatzea, berak emandako eskemaren egitura jarraituz. (UDaren amaiera arte izango da entregatzeko epea).

- ❖ Egun, euskal poeta nahikotxo aipa daitezke. Norbaitek ezagutzen du baten bat?

Norbaitek badaki nor den Beñat Etxepare? Eta *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) ezagutzen duzue? Jarraian autorea aurkeztuko dizuet, PowerPoint-aren bidez.

Orain, azter dezagun *Sautrela* olerkia. Saiatu binaka, autoreari buruz esandakoak kontuan hartuta, olerki honetan eman nahi duen mezua edota bere helburua asmatzen.

Bigarren poetari helduko diogu. Joseba Sarrionandia ezagutzen al duzue? Eta bere lanik? Jarraian autorea aurkeztuko dizuet, PowerPoint-aren bidez.

Orain, azter ditzagun olerki laburtxo hauek binaka. Hauek kartzelan egonda idatzi zituen poesiak dira. Hausnartu zer sentimendu edota emozio adierazten dituzten, zuen ustez, eta oroitu bakoitzak iritzi desberdina izan dezakeela. Azkenik, klasean ozen eztabaidatuko dugu eta etxean olerki baten gainean irakurketa iruzkindu bat egingo duzue banatuko zaizuen eskemari jarraituz.

## **5. JARDUERA: Euskal emakume poesiaren bilakabidea eta emakumezko poeta kuttun bi**

Jarduera honekin, emakumezkoek arlo guztietan, eta kasu honetan batez ere literaturan egin duten bide zaila eta ausarta azaldu nahi zaie. Izan ere, 70. hamarkada arte euskal emakumeak literaturan izan duen irudia (aberriaren eta familiaren sostenguearekin lotzen zena) erakutsi nahi zaie, eta nolatan Amaia Lasak eta Arantxa Urretabizkaiak irudi mugatu hori hautsi eta aurrerapauso garrantzitsua egin zuten, bide berriak irekiz (poesia sentzuala, erotikoa, intimista, ausarta...), gaur egun arte. Horretarako, emakumeen poesiaren bilakaera azalduko zaie, Urretabizkaiak eta Lasak egindako berrikuntza edo iraultza horretan arreta berezia jarritz. Sortu zuten poesia berri hori bi adibideren bitartez erakutsiko zaie: erotismoa lantzeko Urretabizkaiaren *Maitasunaren magalean* (1982) landuko da, eta bide horrek jarraipena izan duela erakusteko modernoagoa den eta hilekoaren gaia lantzen duen Bilbaoren *Ilargizko bularrak* (2006) landuko da. Azken honetan, gaia ere kontuan hartu da; izan ere, nerabeek maiz lotsa sentitzen dute hilekoari buruz hitz egitean, neskek bereziki. Hori dela eta, horri buruz modu naturalean hitz egiteko proposa izan daiteke. Azkenik, lana bidaliko zaie: emakumezko poesia bat hartu eta lantzen duen gaiari buruz hausnartzea. (UDaren amaiera arte izango da entregatzeko epea).



- ❖ Euskal emakumeen poesiak historian zehar izan duen bilakaera behin ezaguturik, jar zaitezte 4ko taldeetan. Hiru talderi Leire Bilbaoren *Bularrezko sagar bi* olerkia banatuko zaizue, eta beste biei Urretabizkaiaren *Maitasunaren magalean* olerkia. Hausnartu zein den gaia, edota mezua, eta hori lortzeko baliatzen dituen ezaugarriak. Irakaslea taldeetatik pasako da pistak emateko, eta ondoren ozen eztabaidatuko ditugu. Etxean emakumeren batek idatziriko poesia bat hautatu beharko duzue eta lantzen duen gaiari buruz hausnarketa egin, orrialde batean edo.

## 6. JARDUERA: Poesiarekin jolasean

Hurrengo jarduerekin ikasleek poesia desberdinak sortuko dituzte. Helburua, ikasleek poesiarekin gozatzea, beren emozioak ateratzea, eta beren burua gainerakoei aurkeztea da. Nerabezaroa gazteentzat garai zaila da; emozio nahasiak dituzte, zalantzak, beldurrak, rolak hartzen dituzte... eta jarduera hauekin horiek pixka bat landu nahi dira, nerabeei laguntzeko asmoz, betiere poesia lantzen den bitartean. Modu berean, sormena ere sustatzen da (zenbait adituren esanetan gehiago indartu behar den gaitasuna) eta, azkenik, dinamikoagoak diren jarduerak izanda, “gogotsuago” parte hartzea espero da.

- ❖ Lehenik eta behin, zuen izaera deskribatuko duzue olerki labur baten bidez. Idatz ezazue zuen izena maiuskulaz eta goitik behera, bertikalean. Zuen izenaren letra bakoitzarekin zuek definituko zaituzten hitz bat, bi edo hiru idatzi. Adibide batzuk ikusiko ditugu lehenik; ondoren bakoitzak zuena egin, eta azkenik ozen irakurriko duzue.
- ❖ Badira poesia-molde desberdinak. Lehenengo egunean zenbait poesia ikusi genituen leku desberdinetan: jantzietan, tatuajeetan... eta badira beste hainbat modu poesia egiteko. Ondoren, kaligrama izena duten olerki batzuen adibideak ikusiko ditugu.  
Bestetik, aipatu genuen bezala, badira album ilustratuetan ilustrazioak laguntzeko idazten diren olerkiak; edota olerki-liburuetan olerkiak laguntzeko baliatzen diren irudiak. Hau da, kaligramekin eta olerki eta irudiak uztartzen dituzten poesien adibideekin ikus dezakegu irudiak eta olerkiak elkar joan daitezkeela bilatzen duten xedea indartzeko. Ikus ditzagun eredu gehiago.

Orain zuen txanda da: kaligrama bat sortu ala irudi bati loturiko olerkitxo bat idatzi behar duzue. Kaligrama bada, kontatzen duzuenarekin loturiko irudi bat sortu behar duzue, eta aldiz, irudiari loturiko olerkia egin nahi baduzue, aukera ezazue nire mahai gainean dauden irudien artean (zuhaitz biluziak, ur-tantak, itsasoa, izotza, sua, putzua, basamortua, baserria...) nahi duzuen, eta irudi horren propietateak edo zuentzat duen sinbolismoa kontuan harturik, sor ezazue olerkitxo bat.

Azkenik, bakoitzak egindako lana irakurriko duzue, eta laburki gainerakoei azalduko digu.

## 7. JARDUERA: Kantak poesia al dira?

Jarduera honen bidez abestiak olerki mota izan daitezkeela erakutsi nahi zaie. Kantekin emozioak sentitzen ditugu, eta ikasleei azalduko zaie doinuak eta letrak elkartzean badagoela asmo bat, eta norberaren sentimenduak kudeatzeko oso onak izan daitezkeela kantak eta hauen letrak. Hori hausnartu ez ezik, jarduera honek beste helburu bat dauka: kanta bakoitzak gai bat lantzen du (Euskal Herriko egoera, artista izateko zailtasunak batez ere emakumeontzat, heriotza eta norbere buruarekin ongi sentitzeko zailtasuna).

- ❖ Uste duzue abestiak olerkiak direla? Zergatik? Goazen eztabaidatzera horren inguruan...

- ❖ Aurrean 4 kanten letrak dituzue: *Betazalak erauztean* (Katamalo), *Iraila* (Berri Txarrak), *Er(h)ori* (Izaro) eta *Zapalduen olerkia* (Ken Zazpi).

Lauko taldeetan jarriko zaituztet. Kantak entzungo ditugu, eta talde bakoitzak horietako bat aztertuko du. Azterketa egiteko, talde bakoitzak pista batzuk biltzen dituen orria izango duzue. Amaitzeko, talde bakoitzak egindako azterketa gainerako taldeei azalduko die.

- Jarduera hau Ochoa De Olzako 4. DBHko ikasleekin burutu zen: 15 ikasle zeudenez, 3 taldetan jarri ziren eta honako abestiak landu zituzten: *Betazalak erauztean* (Katamalo), *Iraila* (Berri Txarrak) eta *Er(h)ori* (Izaro). Taldeei abesti bakoitzaren testuingurua azaldu

zitzaien labur, eta abesti bakoitza lantzeko pistak biltzen zituen orri bana eman zitzaien. Talde guztiek arreta jarri zuten ariketan eta letraren esanahia bilatzeari ekin zioten. Irakaslearen laguntza behar izan zuten, baina oro har, haien kabuz egin zuten. Hala ere, ikasle bakarren batek ez zuen interesik erakutsi, baina gutxi izan ziren. Orokorrean gustura aritu ziren, eta espero ez ziren zenbait ikuspuntu eta esanahi bildu zituzten, interesgarriak zirenak. Modu berean, 5' sobratu ziren eta ikasleek falta zen abestia; *Zapalduen olerkia* (Ken Zazpi) jar nezan eta esanahia azal nezan eskatu zidaten. Jarduera interesgarria izan zela iruditzen zait.

## 8. JARDUERA: Poesia collagea

Collage bat egin beharko dute. Beren bizitzan oinarririk olerki edota poesiaren bat sortu beharko dute (bertso-lerroak eta ezaugarriak mugatu gabe), norberak sentitzen duena nahi duen moduan adierazteko askatasuna izango du. Poesiak sortzeko, haiek aukeraturiko abesti baten letra eta irakasleak eramandako olerkien letrak nahastu beharko dituzte. Ondoren, kartulina apaindu egingo dute, collageari nortasun handiagoa emateko. Helburua, sormena lantzeaz gain, haiek olerkiekin lan egin dezaten da, haiek sortzaile izatea eta, gozatzea.

Modu berean, beraien bizitza denez azalduko dutena, horren gainean hausnartuko dute. Gerora, egindako lana aurkeztuko dute. Collagea egiten duten bitartean euskarazko musika lasaia egongo da fondoan, norbera bere lanean kontzentratua egoteko.

- ❖ Gaurko ondorengo materialak ekarri behar zenituzten:
  - Kartulina handi bat
  - Bost argazki:
    - Txikiak zinetenekoa
    - Argazki kuttuna
    - Maite dituzuen pertsonekin
    - Maite duzun lekua
    - Maite duzun zerbait egiten/une berezi batekoa
    - Euskaraz gustuko duzun kanta baten letra

Zuek ekarritako kartulinar collage bat egingo duzue, zuek ekarritako materialak eta nik ekarritakoak baliatuz. Zuen argazkiak bertan itsatsiko dituzue, eta zuek ekarritako kantaren letra eta nik ekarritako katen zein poesien letrak manipulatur (moztuz etab.) olerkia edo olerkiak sortuko dituzue. Olerkietan argazkietan sentitzen zenutena adieraz dezakezue, ala istorio bat kontatzen duen poesia bat sortu, edota argazkiak ikusten dituzuenengan sentitzen duzuen adierazi... libre da. Ondoren, gainerakoei lanak azalduko dizkiezue; bertan kontatzen dena, jarduera gustuko izan duzuen...

- Jarduera hau Ochoa De Olzako 4. DBHko ikasleekin burutu zen: ikasleek gustura parte hartu zuten sormen lan honetan, eta poesia interesgarriak sortzen aritu zirela ikusi nuen. Dena den, bi ikasleek argazkiak ahaztu zituzten, eta ez zen denborarik egon lanen aurkezpenak egiteko. Hala ere, nahiko kontzentratuta ibili ziren gehienak, salbuespenak salbuespen.

## **9. JARDUERA: Zuek sortzaile, zuek poeta**

Ikasi dutena erakusteko unea da, eta haiek ere idazle izan daitezkeela ikusteko unea. Jarduera honen bidez sormena landuko dute, hizkuntzarekin jolastuko dute, poesiaren ezaugarriak barneratuko dituzte eta talde-lanean aritzen trebatuko dira, emozioak adieraztea eskatzen duen ariketa baten bidez: poesia edo abesti bat sortzea. Poesia bada, fondoan musikaren bat jarri beharko dute ikasleek. Gainera, sortutako idatziei bideo bat erantsi beharko diote, poesiaren esanahia indartzeko, eta bidenabar, IKTak lantzeko. Irakasleak bideoak egiteko “VivaVideo” programa erakutsi eta azalduko die. Lan honekin unitatean zehar ikasi dutena erakutsi beharko dute: poesiaren ezaugarriak, egitura... eta hizkuntzarekin jolas egingo dute eta emozio eta sentimenduen hiztegia landuko dute. Modu honetan, eskuratutako jakintzaz eta trebetasunaz ohartuko dira eta horiekin lan egingo dute. Azkenik, gainerako ikasleei, egindako lana aurkeztuko diete eta ikasitakoaren gainean hausnarketa bat egingo dute.

Modu berean, irakasleak auto-ebaluazioa banatuko die unitate didaktikoaren eraginkortasuna ikusteko eta ikasleek eskuratutako gaitasunak eta iritziak behatzeko.

- ❖ Gaurko klasea informatika gelan emanen dugu, ordenagailuetan.

Orain zuen txanda da. Landu dugun guztia kontuan hartuta olerki edo kantu bat asmatu behar duzue, launaka. Poesiari dagozkion ezaugarrien artean baten bat erabili behar duzue. Gutxienez 12 bertso-lerro izan behar ditu sorkuntzak.

Kantua bada, melodia zeuek sor dezakezue, (beharbada musikariak daude zuen artean). Bestela, gustuko duzuen melodia batekin abestu, edo errexitatu. Kantua egin baino, olerkia egin nahiago baduzue, fondoan melodiaren bat sartu behako duzue, zuen ustez, poesiak daukan xedea indar dezakeena. Amaitzeko, olerkiari edo abestiari fondoan bideo bat jarriko diozue, zuen lanak adierazi nahi duen horri lotuta egongo dena.

Bideoak klasean ikusiko ditugu aurrerago.

### 3. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA IREKIAK

Hasieran aipatu moduan, Morenok (1998: 21) poesiaren gainean gizarteak duen ikuspegi orokorra honela definitzen du: “indiferencia absoluta y, en cantidad de casos, desprecio infundado”. Txikitatik, beste generoak baino gutxiago lantzen eta ezagutzen den generoa da poesia, eta maiz, zaila den generoa delako aitzakiarekin, hezkuntzan ez da genero honetan gehiegi sakontzen.

Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan eta batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan poesia bazterrean uzten da eta beste literatur genero batzuek hartzen dute indarra. IESO Ochoa de Olza DBHI ikastetxeko 4. DBHko ikasleek galdetegian adierazten dutenaren arabera, gaztelaniaz poesia klasikoa landu duten arren, ez dute poesia modernoa ezagutu; eta euskararen kasuan, euskal poesia eta poeten gainean duten ezagutza urria adierazi dute, oso gutxi landu duten generoa dela baieztatuz. Alabaina, eskolatik kanpo ia erdiak poesia irakurtzen duela adierazi du, (batzuek gaztelaniaz bakarrik, eta beste batzuek, gaztelaniaz zein euskaraz), nahiz eta klasean landu ez duten. Azkenik, klasean generoa gehiago lantzeko nahia adierazi dute erdiak baino gehiagok.

Aurretik argi azaldu den bezala, poesia lagungarria eta baliogarria izan daiteke bai norbearen bizitzan eta baita norberaren hizkuntza gaitasuna hobetzeko orduan ere. Beraz, zergatik lantzen da horren gutxi genero hau? Aurretik esan bezala, askotan balio handiagoa ikusten zaie beste genero batzuei, eta poesiaren gaineko aurreiritzia ezkorra da orokorrean. Gainera, poesia, orokorrean gehiegi ezagutzen ez dugun generoa denez

gero, bazterrean uzten da. Generoaren gaineko lanketa beharrezkoa da, eta hori egiteak denbora eta lana eskatzen du.

Modu berean, poesiaren onurak asko izan daitezkeela argi utzi dugu aurretik. Alabaina, poesiaren onura hauek ikasleei erakusteko, jarduerak ongi pentsatu eta antolatu behar dira, are gehiago ezagutzen ez dugun generoa bada.

IESO Ochoa de Olza DBHI ikastetxeko 4. DBHn hainbat jarduera praktikan jarri ziren, aurretik azaldu moduan. Maila hori aukeratzearen arrazoia, gehienbat, ikasleen heldutasuna eta ulermen gaitasun handiagoa izan ziren. Burututako jarduerak harrera nahiko ona izan zuten ikasleen aldetik. Hasieran, poesia landuko nuela aipatzean batzuek nagia adierazi zuten. Hala ere, orokorrean ikasleen jarrera, parte-hartzea eta interesa nahiko handia izan zen. Egia da ikasle batzuek ez zutela interes handirik erakutsi. Dena den, gehiengoan jarrera baikorra izan zen eta jardueretan ikasleen hausnarketa ikusten zen. Klaserik arrakastatsuen abestiak lantzea helburu zuen klasea izan zen. Letren esanahia bilatzeko interesa erakutsi zuten, eta jarduerak nolabait motibatu egin zituen. Gainera, aipatzekoa da jarduera bitartean euren arteko komunikazioa orokorrean euskaraz izan zela, (normalean gaztelaniara jotzen duten bitartean), eta abestiekin, lexiko berriari buruz galdetu zutela. Beraz, hizkuntza gaitasuna ere lantzeko egokia izan daitekeela irudi du.

Beraz, ikasleek poesiaren gaineko ikuspegia aldatzeko gai badira, zergatik ez irakasleok, edota gizarteak?

Denbora luzez bazterrean utzi dugun generoa da, baina argi dago gauza asko lantzeko egokia izan daitekeela. Zergatik ez berreskuratu eta hezkuntzan gehiago baliatu?

#### 4. BIBLIOGRAFIA

ALCAYAGA, M. (2013). “Kirmen Uribe: ‘Poesia bizitza da. Bizitza baino gehiago, bizitza eta gehiago’”. *Euskaljakintza*. Hemendik eskuratua: <<http://euskaljakintza.com/kirmen-uribe-poesia-bizitza-da-bizitza-baino-gehiago-bizitza-eta-gehiago/>>

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA (2010). “Miren Agur Meabe-ri elkarrizketa Mugalarin”. *Hitzen Uberan*. Hemendik eskuratua: <<http://uberan.eus/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/miren-agur-meabe-ri-elkarrizketa-mugalarin>>

- ETXANIZ, X. (1997a). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. Hemendik eskuratua: <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Xabier Etxaniz TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Xabier_Etxaniz_TESI.pdf)>
- ETXANIZ, X. (1997b). *Haur eta Gazte Literatura*. Iruñea: Pamiela.
- ETXANIZ, X. eta LOPEZ, M. (2001). "Euskal haur gazte literaturaren sistemaren eraketa". *Revista de Psicodidáctica* 11-12, 213-228. or. Hemendik eskuratua: <1/UPV 00051.154—H-13927/2001>
- ETXANIZ, X. (d.g.). "Haur eta gazte literatura". *Basqueliterature.com*. Hemendik eskuratua: <<http://www.basqueliterature.com/basque/historia/hauretagazte>>
- FUERTES, G. (1995). *Mujer de verso en pecho*. Madril: Cátedra.
- ISER, W. (1987) "El proceso de lectura: Enfoque fenomenológico". MAYORAL, J.A. *Estética de la recepción-en*. Madril: Arco/Libros.
- KORTAZAR, J. (zuz.) (2011). *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- IBAN, A. (1999). "Haur eta gazte literaturan eragile asko dago eta indarrak uztartu behar dira", Mari Jose Olaziregiri elkarrizketa. *BERRIA*. Hemendik eskuratua: <<https://www.berria.eus/hemeroteka/egunkaria/pdfa/?data=1999-06-02&orria=046&zenb=NDIKM1JSY0RxZTEyMFB0d0pIV293Zz09>>
- IBARGUTXI, F. (2015). "Poesia makulua da zenbait unetan" Goizalde Landabasori elkarrizketa. *EL DIARIO VASCO*. Hemendik eskuratua: <<https://www.diariovasco.com/culturas/libros/201510/25/poesia-makulua-zenbait-unetan-20151025122354.html>>
- LUZÁN, J. (2006). "Gente con poesía". *EL PAÍS*. Hemendik eskuratua: <[https://elpais.com/diario/2006/05/28/eps/1148797615\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2006/05/28/eps/1148797615_850215.html)>
- MARGALLO, A. M. (2011). "La educación literaria como eje de la programación", ABASCAL M.D eta RUIZ BIKANDI U. (koord.) *Didáctica de la lengua castellana y la literatura-en* (167-186). Bartzelona: Grao.
- MITXELENA, K. (1981). "Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak", ASKOREN ARTEAN, *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak-en*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- MURUA, I. (2010) "Zer da poesia?". *Botxotik ziberespaziora*. Hemendik eskuratua: <<https://imurua-botxotik.blogspot.com/2010/01/zer-da-poesia.html>>

Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Kurrikuluma. NAO (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, 2015eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala uztailearen 2koa)

OLAZIREGI, M.J. (2000). “Literaturaren irakaskuntza bigarren hezkuntzan. Testu iruzkinetarako metodologia eta iradokizunak”. *Hegats* 28, 39-73. or. Hemendik eskuratua:

<<https://www.idazleak.eus/fitxategiak/dokumentuak/aldizkariak/hegats28.pdf>>

SANTIAGO, XX. (2013). “Entrevista a Elvira Sastre: ‘La poesía es una forma de desahogarse, de llorar, de curarse’”. *C’mon Murcia*. Hemendik eskuratua:

<<https://cmonmurcia.com/entrevista-a-elvira-sastre/>>

SEOANE, A. (2017). “Federico García Lorca: ‘Ni yo ni ningún poeta sabemos lo que es la poesía’”. *El Cultural*. Hemendik eskuratua:

<<https://m.elcultural.com/noticias/letras/Federico-Garcia-Lorca-Ni-yo-ni-ningun-poeta-sabemos-lo-que-es-la-poesia/11508>>

UGARTE, I. (2018). “Leire Bilbao: ‘Poesia da nire genero naturala’”. *111 Akademia*. Hemendik eskuratua:

<<https://www.111akademia.eus/albisteak/2018/02/05/leire-bilbao-poesia-da-nire-genero-naturala/>>

URKIZU, U. (2000). “Itxaro Borda: ‘poesia bizitzeko gogo bat eta mundua sentitzeko modu bat da’”. *Euskonews*. Eusko Ikaskuntza. Hemendik eskuratua:

<<http://www.euskonews.eus/zbk/84/itxaro-borda-quotpoesia-bizitzeko-gogo-bat-eta-mundua-sentitzeko-modu-bat-da-quot/ar-0084002001E/>>